

## Bakantza giro

TXILLARDEGI



**ABUZTU** erdia, festa hemen, festa han... Zergatik gaitzetsiko? Zergatik gaitzetsiko guk batez ere, herri honen galbarioa geure muinetan

daramagunok? Nork du guk baino beharrago hemendik edo handik barre apur bat egitea?

Halaxe da.

Baina egun hauetantxe ere heldu zaizkit 'beste abertzale' horien berriak. Aurki barruan hamalau urte beteko dituen Torre mungiarra ikusteko asmoa neukan, Soziolinguistinari buruzko Tesia zuzentzen baitiot. Hots, ezezko borobila iritsi zait. Zenbait aldiz buruz buru ikusteko aukera izan badut ere, oraingon: 'EZ'.

Eta urteak, are bizia bera, piskanaka galtzen ari diren aberkide miresgarri horietaz guztiez oroitua naiz. Hor ikusi dut, besteak beste, Gexan adiskidearen izena, baita olerkitxo bat ere; be-rrau Frantziar barrena ahantzia. Eta, agian Kristiana dela-ta, Alfonso Etxegarai deportatuz oroitua naiz, aspaldi honetan izerdit patsetan Gineako parajetan usteltzen ari. Eta Xenpe oiartzuarraz.

Eta trumilka etorri zaizkit adiskide horien aurpegiak eta ahotsak: Albaro, eta Patxi Exki-xabel, eta Itziar oiartzuarra, eta Joseba duran-garra, Wigtensteindarra, eta 'Arrano Belta' ren sorreran ari izandako Etxeberriata-rra, eta Zorroagako kide dudana Mari Eujenia, eta beste mila. Denak erdi ahantziak; edo, lan gehiegiaeren poderioz, 'geroko gero' ezin-amaitu horretan utziak.

Eta gauzak horretan Juan-rena ahaideek ar-giraturatuko eskelari esker errepertatu dit, hiru urte (hiru bai!) joan direla ordiziari Cabo Verde arrotz hartan ito zenez geroz.

Urteak aurrera doaz isilka. Eta guzti gudiaren biziera ere bai, ahantzura osoan.

Eta honek ere (orain arteko hutsuneak gain-dituz) postal mordoska bai bederen igortzea erabaki dut. Haienztaz ere urteak eta malen-ko-kiak aurrera baitoaz. Eta hori egingo dut, eta dugu.

## Marmook

MIKEL BUJANDA



**KOSTALDE**

guztia inbaditu digute marmokek. Ehundaka ikusi ahal izan dira itsa-koan erretzik gertu. Olatu bakoitzarekin dozena bat

hoietako geratuko da hondartzan. Izaki bitxiak dira marmoka hauek, polipoak, zelentereok diotenez, eboluzioaren katean hasierako muturrean kokatu behar omen dena. Ikusi ez duenarentzat, kolorez ura bezain garden, eitez txanpinoiak bezala buruhandi, edo hobeki, burutako goardasola dutena. Zein famili biologiko ote den bezain jakingarri da, orain artean, ez zaiola marmokari interes gastronomikorik aurkitu.

Guztiaren gainetik, egin beharko litzatekeen aurrena, marmoken inbasioaren arrazoa ezagutzeko da. Extralurtarren arrastorik inon topatu uste denean bezalaxe: zertara ote datoz, zer adierazi nahi digute, zein da esanahia. Analista adituek funtsezko galdera honi erantzuna emanen ez dioten bitartean, itsasertzeko bizilagunek ez lukete zertan marmoken kontu hau izkutatzen ibili beharrik. Turistak uxatuko dizkieten beldur dira. Errealitatea ixilpean gorde nahi izateak ez du sekula emaitza onik ematen. Hobe da gaiari buelta ematea, eta marmokak turismo-erantzako erakargarri bihurtzea. Maskota gisa hartzea, etxerakotzea. Nazkagarria da marmoka, lingirdatsua den guztia bezala, baina begi alaiak eta aho irribartsuak murratuz gero, anagrama guztiz sinpatikoa litzateke. Adibidea jarrita, Donostiako ikur ezaugarritzat aukera liteke marmoka. Hiriaren bazter guztietan ageriko litzateke, alai, emblematico, egun zoko ilunean ere, gogotzeraino, soma lieken Chilli-daren irudi belarri-handidun omnipresente ho-rrer ordez.

## HEMEROTEKA



ALFREDO / DIARIO 16

## ●egin

## Itxaropenak epeka

Filtrazioak, intoxikazioak, espekulazioak. Tregua tazitua, uestezko ezintasun logistikoa, harridura. Filtratzaile interesatuek eta hango zein hemengo indar politiko batzuek beren helburua finkatu dute: denbora irabaztea, iritzi publikoan itxaropen bat sortzea, era horretan ETAK arazoak izan ditzan berriro atentatuei ekiteko iritzi publikoan eragin negatibo bat arriskatu gabe. Baina manio-brak badu alderantzizko alde ere gatazkaren irtenbide bezala itsu-itsuan bide errepresiboari eusten diotenentzat. Arazoak saihestezina den oinarri politikoa duela dakitenak konturatzan ari dira elkarriketarako baldintzak gero eta aurreragotzen ari direla. Espektatibek, nahiz eta estrategia tendentzioso batek sortu dituen horiek, okerreko diagnostikotik posibilismo nabarmenera igaro behar dute. Agian horregatik eskatzen dute Corcuera eta EAJK zuhurtasuna, baina kartak apurtu gabe. Oso ondo gogoratzen dute ETAK bere helburue-

tatik at utzi zituela Joko Olinpikoak eta manio-brak intoxikatzaileak izan zirela iritzi publikoan uestezko asmo borroka hori sartu zutenak. Orain koherentziak azaldu behar dute diagnostiko faltsu hori, denbora irabaztearren egoera luzatu nahian. EAJK urrats garrantzitsua eman du jendaurrean agindu bait du, buruzagi adierazgarriren baten bidez, bultzatu egingo duela harremanei berriro ekitea Santo Domingon, baldin eta distentsioak irailera arte irauten badu. Sinestu ala ez sinesteko, epe finkoan ikusiko da zein den enigmaren soluzioa.

JUAN M. IDOIAGA

## ●ABC

## Inkognitak ETArenguruan

(...) Bigarren inkognita tregua hertsiki alde batekoa izan den edo, bestela, behatzaile politikoen atzemaingaitzak izan diren harreman sakonen ondorioz gertatu den jakitean datza. Baldin eta sinestu behar badugu zenbait «etsipen»

abertzalderen adierazkortasuna, batez ere Herri Batasun agertutakoak, ETAK ez zukeen orain artekoan erantzun ofizial egokirik aurkituko. Interpretazio honek bandak Gobernuari hilabeteko bakealdi eskaini diola pentsatzera eramango luke, egun azaltzen duen jokaera bere ahuleziak behartuta bait dago. Lehen aipatutako ezintasun hipotesiaren aurrean geundeke. Baina arrazoizkoagoa dirudi pentsatzeak keinu eta mezuen elkartrukatze bategi. Hau litzateke egoeraren benetako «quid-», oraindik argitu gabeko inkognita handia.

LORENZO CONTRERAS

## ●EL MUNDO

## Fronte abertzalea


Beste bat da agertzen hasi den eszenarioa. Berria da nahiz eta aspalditik datoren. Eta hori fronte abertzalderen berragerpena da, horretan EAK, HBra hurbilduz, EAJ batera edo bestera lerratzea behartuko lukeelarik, honek kiroski hain gustukoak dituen malabarismoak uko egingez. Baldin eta fronte abertzalea

antolatzea lortuko balitz, euskal politikagintzaren oso aldi interesgarrian sartuko ginatke. Biolentziarik gabe, Euskadi independentziara ingura liteke hiritarren nahietatik hurbilen dauden formen bidez. Puntu honetan, EAJK esan ohi du independentzia hobeto lortzen dela eraikitzen ari den Europa horretan. Zalantza izpirik ez dut europarren Europa batean arazo honek konponketa zuzenagoa izan lezakeela. Era berean, ez dut zalantzarik Europa osatzen duten herrien independentziarekin, edo benetako autonomiarekin. Maastrichtek zerikusi gutxi duela edo bategi ez. Bide batez, autodeterminazioa zertarako nahi dugun EAJK galdetzen duenean (askatasunaz Le-ninek galdegin zuela kontatzen duten bezala), ogia zertarako den moduko galdera dela erantzun beharko genioke. Izan ere, eztabaidan jartzen dena autodeterminazio baldin bada, eztabaidagarriagoa litzateke independentzia eta askoz gehiago nazionalismoa. Eta are gehiago EAJ bera ere.

JAVIER SADABA

## GAIA JARRITA

## Arrantzaleen arteko gatazkak



Berriro ere istiluz dira arrantzaleen kontuak nere iritzi arrazioakin dabilta asarratuak nere ustetan eginak ziran alkarreki tratuak lotsa gitxikin berriro uka leno agindutakoak beti bezala orain ere alu frantsez madarikiatuak

JOXE LIZASO

## Egunkaria

Batxorde Partekidua: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:  
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Zuzendaria:  
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkariek: JOXE MIEL ZUMALABE

Gereñak: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URÍA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02  
Pabilloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egolitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1, / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Araba: San Antonio, 20-1.erker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iraitse Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Inubea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kua. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11